

# Hiri debekatuaren Mapa

## Jendetze lanak



# Edurne Mendizabal Tolosa

**Hernaniko Udaleko Berdintasun Saila eta Berdintasun Kontseilua.  
Inem Toki Korporazioak programa 2.007 eta 2.008**

## AURKIBIDEA

1.- Egitasmoaren sorrera	1
2.- Egitasmoaren garapena	1
2.1.- 2006ko azaroatik 2007ko maiatzera	
Helburuak	2
Metodología	3
Ikastetxeak	4-10
Elkarteak	
Udaletxeko politiko eta teknikariek	10
Egitasmoaren balorazioa	11
2.2. ATALA: 2007ko Urritik 2008ko Otsailera	12-16
Mapa kaleratzea	

## **ERANSKINAK**

**E.1.- PUNTUEN TXOSTENA**

**E.2.-MAPA BERA**

**E.3.-PRENTSA**

## 1.- Egitasmoaren sorrera

Egitasmo hau 2006ko azaroan hasi zen, eta Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak INEM i egindako kontratazio eskaera izan du abiapuntua eta Berdintasun Kontseiluaren ideia eta babes paregabea.

Bi atal nagusi izan ditu: bata 2007ko maiatza arte (txostena ekainean aurkeztu genuen) eta bestea 2007ko urritik 2008ko otsaila arte.

Lehen fasean prozesu parte hartzaile zabal eta dinamikoa egin zen hirigintza eta generoa lan ardatz izanda. Bigarren zati honetan berriz informazio horren lanketa, udaletxeko teknikari eta politikoeekin eztabaida eta adostasuna bilatu eta guzti horren emaitza izan den Mapa bera argitaratu da. Mapa bera etxez-etxe banatu da eta parte hartzaileei aurkezpen zuzena egin zaie. Horretaz gain, jendaurreko aurkezpen zabalak egin dira: irratia, prentsa e.a.

Hasteko eta kokatze aldera lehen epean (2006ko azaroatik 2007ko maiatzera) egindakoa laburbilduko da:

## 2006ko AZAROATIK 2007ko MAIATZERA

### EDUKIAK

Hiri Debekatuaren Mapak hirigintza aztertzen du genero ikuspegitik, kasu honetan Hernaniko hirigintza. Azteketaren ardatzak espazio publikoak sortarazten dituen bizipenak izango dira, eta zentzu honetan beldurra- ziurtasuna, irisgarritasuna, erosotasuna, mugikortasuna e.a. izango dira.

Emakumeei dagokionez, bi lan ardatz izan ditugu:

- Herriko ekipamenduaren eta mugikortasunaren azterketa; emakumeak dira zaintza lan gehienak egiten dituztenak eta, ondorioz, beraiek dira herriko ekipamenduak erabiltzen dituztenak. Herri barruan oinez gehien ibiltzen direnak dira eta sarritan galkarga eraman behar izaten dute: erosketetako pisua, gurpildun aulkia bultzatu e.a. Helburua: zaintza lanen banaketa egokiagoak ematen duen aberastasuna eta onurak azpimarratzea. Zaintza horiek aurrera eramateko denontzako erraztasuna eta zerbitzuak aldarrikatu nahi ditugu, eta noski, pertsona orok espazio publikoa erabiltzeko aukera guztiak izatea.
- Segurtasuna. Sistema patriarkalaren eraginez emakumeek barneratuta dute kale-erasoei beldurra. Ondorioz, emakumeak, gauetan batez ere, ez dira lasai ibiltzen.

Hala ere, eraso gehienak inguruan izaten dituzte, etxean nahiz lantokian. Egoera hori kanporatzea garrantzitsua da eta kaleetan seguru ibiltzeko

sentsazioa areagotu behar dugu, denok leku guztietara joateko dugun eskubidea bermatzeko. Leku irekiak eta dinamikoak, kaleetako ikusgarritasun eta argitasun handiagoa eta seinalizazioa dira horretan laguntzen duten elementuak.

Beste antzeko hainbat egitasmo aztertu ondoren argi geratu da Hiri Debekatuaren Mapak oso anitzak direla eta azken finean espazioaren azterketaren bidez errealitatea islatzeko aukera ematen digula. Ondoren Hernaniko ezaugarriak kontutan hartuta eta Berdintasun Sailak eta Kontseiluak bost urte hauetan egin duten ibilbidea jarraitu eta indartu nahian honako egitasmoa bideratu dugu.

## HELBURUAK

### HELBURU OROKORRA:

Hernaniko emakumeen jabetze prozesuan aurrerapausoak ematea.

### HELBURU ZEHATZAK

Emakumeek hiri herri zein auzoetan dituzten bizipen eta beharren inguruan jendarte eztabaida plazaratzea.

Bizipen hauen artean bereziki emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko sensibilizazioa bultzatu, emakumeen beldurrak aztertu, eta ziurtasuna eta autonomia bideratu

Bizipen eta behar hauei erantzuna emateko emakumeen parte hartze sozio politikoa bideratzea.

## METODOLOGIA

Egitasmoaren metodología parte hartzailea izan da erabat. "Hirigintza eta generoa"ren inguruko tailerrak egin dira eta sensibilizatorako eta emakumeen parte hartze politikorako hainbat jarduera.

Gainera, ibilibide guztiak jarraipen handia izan du, balorazio elkarrizketak eta fitxak bete dira jarduera guztietan eta zehazki dokumentatu da: idatziz, argazkiak eta bideoz grabatuz.

#### A IKASTETXEA DBH 3.+4

1.fasea: "hirigintza eta generoa" tailerrak. Orotara 269 gazte aritu dira. 2 ordutako bi saio egin dituzte. Lehenengoan oinarri teorikoak jaso eta taldekako lana jarri zaie fitxa bat beteaz herriko txoko desberdinen argazkiak atera zituzten. Lan hori amaituta, 2. saioan, jasotako informazio guztiarekin talde bakoitzak herriko plano handi batean beraien inpresio eta ikasitakoak bildu zituzten.

Lehen fase honen amaiera moduan eta sensibilizazio orokorrerako garrantzitsua izan den erakusketa antolatu zen herriko kultur etxeko pasiloetan. Hiru astez egon zen eta jende ugari ikusi du.

Balorazioa oso positiboa izan da, parte-hartzea ezin hobea eta balorazio fitxetan gazteek esandakoaren artean esanguratsuena: herria beste begi batzuekin begiratzen ikasi dutela bertan bizi diren jende talde ezberdinak kontutan hartuz. Gaiaren interesa, irakasleak eta beraien lana oso ondo baloratu dute eta gaiarekin jarraitu nahi dutela adierazi dute.

2.fasea: 1. fasean "puntu beltzak" jaso ditugu, herrian hobetu beharreko lekuak eta baita heziketa, jarrera, pentsamolde ea. Beraz, fase horri Hiri

Debekatuaren Mapa deitu diogu. Dena den, ez genuen alde negatibo edo zail horretan utzi nahi eta leku horiek guztiontzat erabilgarri izatea eskatzen duen mugimendua sortu dugu: Jendetze lanak.

Lehenengo fasean jasoko zela jakinda, eta batez ere gure helburua den indarkeria eta beldurraren gaiari heltzeko diseinatua. Honela, neskek "autodefentsa" tailerra izan zuten eta mutilek berriz, "gizentasuna eta indarkeria", talde bakoitzak 6 orduz.

"Jendetze Lanak" mugimendua ezagutarazteko logo bat asmatu dugu eta berorrek hainbat puntutan eta ikastetxeetako neska gazteekin batera, logoa bera margota eta graffitiak egin genituen. "leku hau guztiontzat berreskuratzen ari gara, aldarrikatzen" esanahiarekin. Modu honetan, neska eta emakumeen jabetze prozesuan aurrerapausoak emanez.

Balorazioa bai gazteek betetako fitxetan eta baita iraskasleekin egindako elkarrizketetan bikaina izan da eta ildo honetatik jarraitzeko irrika adierazi dute. Beraz, Berdintasun Saitetik jarraipena emango zaio.






Elizatxo ikastolan Hirigintza eta generoa tailerrean, 1. saioa



Inmaculada ikastetxea Hirigintza eta generoa tailerrean, 2. saioa

"Hirigintza eta generoa" tailerren ondorioz ERAKUSKETA



Inmakulada ikastetxean « gizontasuna eta indarkeria” tailerra

Langile ikastetxean “autodefentsa” ikastaroa



Langileko neskak "Jendetze Lanak"egiten



Hernaniko Hiri Debekatuaren Mapa  
Edurne Mendizabal Tolosa - Hernaniko Udaleko Berdintasun Saila eta Berdintasun  
Kontseilua. Inem Toki Korporazioak programa 2.007 eta 2.008

## UDALETXEKO POLITIKO ETA TEKNIKARIEKIN

Egitasmoaren banakako aurkezpenez gain, hainbat bilera egin dira hirigintza, ingurugiro eta berdintasun sailtako langile eta politikoekin. Bertan helburuak bete dira. Inplikazio maila egokia izan dute eta adostasunak lortu dira: ze puntu beltz argitaratuko diren mapan eta ze nolako konponketak egingo diren. Bide honetatik lana jarraitzeko premia ikusi da.

Ibilbide guztian ateratako informazioarekin eta politikoekin adostu ondoren Hiri Debekatuaren Mapa argitaratuko da eta etxe guztietara helarazi.

### BALORAZIO OROKORRA

Hiri Debekatuaren Mapak aukera ugari eskaintzen baditu ere argi geratu da Hernaniko Berdintasun Sailetik egin den aukera edo diseinua oso oparoa izan dela. Jende ugari hartu du parte eta eragin sendoa izan du sensibilizazio eta formazioan.

Ildo honetatik landu diren gai nagusiak: emakumeak dituzten bizipenak herriko espazio publikoan, bereziki, seguratasuna eta beldur sentipenak batetik eta lan erreproduktiboa egiten duten emakumeek aurkitzen dituzten zailtasunak bestetik. Dena den, saio eta adierazpen guztietan azpimarratu da lan honen banakataren garrantzia. Prozesu guztian azpimarratu da errealitate hauek aldatzeko emakumeen parte hartzea publikoak duen garrantzia. Eta ez azpimarratu soilik baizik eta praktikara eraman ere bai, bizipena bihurtu. Modu honetan, emakumeen jabetze prozesuan aurrerapausoak eman dira, batez ere emakume gazteetan. Gainera, gizon gazteetan ere espero ez ziren aurrerapausoak eman dira, sexismoa ekiditeko nahia eta beharra piztu da eta aukera berdintasunaren aldeko apostua.

Azkenik, prozesu guztia dokumentatu dela azpimarratu nahi da, argazki eta bideoz. Egitasmo honek jarraipena izatea nahi dugu eta horretarako teknologia berriak baliatuko ditugu. Dagoeneko Hiri Debekatuaren Jendetze lanak egitasmoaren bloga sortzeko beharrezkoak abian jarri ditugu. Asmoa da prozesuan parte hartu duten gazteek blog hori sortzea eta bizirik mantentzea. Gaia eta egitasmoa bera bizirik mantenduko litzateke modu honetan gazteentzat erakargarri deritzogun formatuan.





## 2.ATALA: 2007ko Urritik 2008ko Otsailera

Lehen atalean landutako informazio guztia biltzen zuen txostena aurkeztu genion berriz ere udaleko langile eta politikoei. Tarte horretan Udaletxeko hainbat politikari eta teknikari aldatu ziren (hauteskunderen ondorioz) eta lan talde horretan hainbat kontutan hasieratik hasi behar izan genuen. Halare, azpimarratu beharra dago egitasmoaren garapen osoan Udaletxeko lantaldeak oso prestu azaldu direla, parte hartze ona eta interesa adierazi dutela. Beraz, oraingoan ere berahala jarri ginen lanean.

Aipatutako txostenean (G-1), aurreko tailer guztietan bildutako informazioa bildu, landu eta konpontzeko proposamenak aurkeztu genituen. Puntu horietako bakoitza eztabaidatu zen lan talde horietan eta hasieratik akordioa hauxe izan zen: epe motzean konpontzeko aukera ditugun puntu horiek argitaratzea komeni da, espektatiba faltsuak ez zabaltzearen herritarren artean.

Bestalde, puntu beltzak biltzen dituen txosten honetan ondorio argi bat ikusi zen: RENFEren trenbideak herria erdibitzen duela eta puntu beltz nagusian bide horretan daudela. Bertan, azpiko bideak eta trenbiderako sarbideak dituzte arazo nagusienak. Gainera, eskumenei dagokionez, trenbide inguruko lurretan Udalak ez du eskumenik, ezin du bere kabuz ezer askorik egin. Halare, Renferekin bilera eskatua du Udalak eta konponbide mantxoagoa izango badu ere ez da inolaz ere baztertzean.

Honela, errealitate bikoitz hau ikusita puntu beltzak Mapan argitaratzeko garaian bi trataera izan dituzte: bata Udalak epe motzean konponbidea emateko konpromezua duten puntuentzat eta bestea Renferekin negoziatu behar denez epe luzeagoan konpontzeko landuko direnak. Mapan argi eta garbi azaldu dugu puntu narajak eta beltzak ezberdinduz.

## MAPA KALERATZEA

Maparen 8000 kopia inguru egin dira eta ethez etxe banatzeaz gain herriko taberna eta dendetan ere jarri dira. Gainera, egitasmoan parte hartu duten ikastetxe eta elkarteei aurkezpena egin zaie. Hau da, beraiek emandako informazioa eta egindako lanketarekin ze nolako prozesua eman den azaldu diegu. Era berean, egitasmoari jarraipena ematera animatu ditugu. Hau da, HERNANIKO espazio publikoari buruzko hausnarketa eta berau hobetzeko parte hartzea sustatuz. Betiere, egitasmo honetan prozesua bera izan da oso garrantzitsua, espazio publikoan erabileran islatzen diren errealitateak izango dira ardatz:

- irisgarritasunak etxeko eta zaintza lanen banaketaren beharra islatzen du.
- beldurra: emakumeen kontrako indarkeria mahai gainean jartzeko aukera ematen digu.

Egitasmoaren jarraipena emateko, ikastetxe eta elkarteetan egitasmoaren aurkezpena egiteaz gain, BLOG eta komunikazio digitalaren inguruko ikastaro bat egin dugu. Bertan, egitasmoko ideiak eta imajinak argitaratzen ditugu eta horretan jarraitu dezakete. Honetan hiru ikastetxek hartu dute parte eta balorazio ona egin dute. Gehigarrian dugu ikastaro horien balorazio laburra. Laugarren ikastetxean, hau da, Langilen ezin izan da aurkezpena egin ordutegi zaitasunengatik baina irakasle, tutore eta hezkidetzat taldeari aurkeztu diegu eta beraiek klaseratuko dute garai ezberdinetan gogoraraziz.

Egitasmoaren jarraipena ziurtatze aldera, Zilegi Eskolan berorren aurkezpena eta jarraipena landu dugu. Zilegi Eskola AEK euskaltegiak antolatzen du ikasle zein herritarrentzat interesa duten gaiak lantzeko saioak. Modu honetan, harremanak euskaraz izateko zubiak eraikitzen dira. Kasu honetan, Hiri Debekatuaren Mapa lantzeko interesa zuten eta gure aurkezpenen barruan sartu

dugu. Dena den, ez da aurkezpen soila izan, lanketa berriekin hasi gara, hau da, hirigintza eta generoaren inguruko saio osoak hasiera hasieratik.

Aurkezpen guzti hauetan lan honekin jarraitzeko aukerak zabaldu dizkiegu parte hartzaileei:

- blogean beraien iritzia edo informazioa argitaratzea
- Berdintasun Kontseilura gonbidatu, bertan jasoko baitira esandakoak
- Udaletxeko Hirigintza Kontseilua.
- Berdintasun saila

Azkenik, Mapa argitaratzearekin batera komunikabideekin harremanetan jarri gara eta harrera ezinhobea izan du. Hala nola, kronikan, Noticias de Gipuzkoa eta Diario Vasco kronikatan erreportai eta elkarrizketa moduan azaldu dute, baita Euskadi Irratiko Deja vu programan ere. Udalak prentsaurrekoa ere eman du Alkatea eta Política Sozialeko arduradunak. Bertara, komunikabideak etorri ziren prentsa gehigarrian ikusi daitekeen bezala. Hauxe da momento honetan egiten ari garen lana, komunikabideen bidez plazaratzen, alegia.

Herritarren pertzepzioa jaso nahi izan dugu, herriko puntu beltzak aurkitu eta, bereziki, emakumeentzat inguru eroso, atsegin eta ziurragoa lortzeko beharrezkoak diren hobekuntzak aldarrikatu. Azken finean, guztiontzat Hernani hobia nahi dugu.

Mapan beran azaldu dugunez, txosten honetan ere eskerrak eman nahi dizkiegu egitasmoan parte harte duten guztiei, (ikastetxeetako gazteei, auzo eta emakume elkarteetako kideei, Zilegi eskola eta herritarrei orokorrean) Haien lanik gabe ezin izango baikenuen ezertxo ere egin

